

ZER DEMONTRE DA HAU?

Irakurri ahala bete itzazu hutsuneak erantzunik egokiena aukeratuz.

Bilbo-Gasteiz, Gasteiz- Bilbo. Bidaia hau (1)_____ egiten dut. Ondo ezagutzen dut bidea. Eta nire kamioi (2)_____ ere ondo ezagutzen du bide horren oztopo nagusia: Barazerrako portua. (3)_____ lasaiki egiten dugu bidea. Hirurogeita hamar kilometroak ordu eta erdian egiten ditugu, arin-arin (4)_____ behintzat. Neguan, berriz, askotan, bi ordu edo gehiago behar izaten dugu.

Horregatik ez dut ulertzen, zer gertatu (5)_____ neguko gaur hartan. Eta tamalez, ez du (6)_____ ulertzen. Hala ere, ni ez nago eroturik; hala uste dut behintzat. Egia osoa kontatuko dizuet berriro.

(7)_____ gau ilun bat zen. Egunero bezala, karga hartu nuen eta, zortzietan, (8)_____ abiatu ginen kamioia eta biok. Martxan hasi (9)_____, taberna batetik neure emaztea(10)_____ deitu nuen esateko askoz beranduago helduko (11)_____. Gero kamioira igo eta Bilborantz jo genuen. Irten eta gero, elurra aurkitu genuen.

Elurak aurreko kristalaren kontra jotzen zuen, eta garbigailua nekez (12)_____ elurra kentzen. Kamioiaren argiak ez ziren oso (13)_____ heltzen, eta bidea doi-doi ikusten nuen. Une batez, Gasteizen gaua (14)_____ pentsatu nuen; baina, gero, aurrera jotzea erabaki nuen.

Kamioiaren motore zaharra eztulka hasi zen. Nik bolantean kolpetxo (15)_____ eman nituen eta kamioia pixka bat animatu zen. “ Gaur Barazar pasatzen baduzu – esan nion(diot) kamioiari – gasoleo onenatarikoa botako (16)_____ hurrengoan, eta gurpil berriak ere ipiniko “. Santa Engrazia presako zubira hurbildu(17)_____, erlojua begiratu nuen: lehen hamabost kilometroak egiteko, hogeita bost minutu. “ Beste bi ordu beharko ditugu Bilboraino” pentsatu nuen.

Zubia pasatzen hasi ginen, poliki-poliki. Ia ez zen ezer ikusten. Neure eskuinaldean, ordea, argitasun handi bat ikusi nuen zubi erdian(18)_____. Oso harrituta geratu nintzen baina(19)_____ segitu nuen gehiago begiratu gabe. Zubia amaitu ondoren, bidea ezkerretarantz bihurtzen da eta beti kontu handiz(20)_____ behar da.

Horregatik, zubia(21)_____ bukatu nuenean, beti bezala, ezkerretarantz jo nuen eta... bidetik atera nintzen, ia ia mendiaren kontra jo arte.

Han geratu ginen biok(22)_____ beterik. “ Ez dut ulertzen. Zer demontre da hau?” pentsatu nuen. “ Bidea aldatu egin dute, bihurgune berri honen seinalerik jarri gabe?”. MOPUkoen kontra birao batzuk bota nituen. “Aluok! Bidea aldatu, eta oharrik ez!”.

Atzerantz jo(23)_____, poliki bidera heldu arte. Umore oso txarrez aurrera segitu genuen.” Eta oraindik Barazarreko portu madarikatua pasatu behar!” oihukatu nuen neure golkorako. Kilometro bi egin(24)_____ nire umore txarra harritasun bihurtu zen. “ Zein da bide hau? Non nago?”...

(25)_____----- ondoan sua eta kea botatzen zituzten tximinia handi batzuk ikusi nituen.

Nik leku hori(26)_____ ezagutzen nuen. Bai! Barakaldon nengoen! Handik aurrera gertatu zena ez duzuet kontatuko, zeren kontatzen badizuet, zoratuta nagoela pentsatuko duzue.

(27)_____ zuek asmatu!

Irakurri ahala bete itzazu hutsuneak erantzunik egokiena aukeratuz.

1. iaz
egunero
etzi
herenegun

2. zahar
zaharrek
zaharrak
zaharra

3. biok
bik
bi
biek

4. goaz
joaten gara
joan gara
goazenean

5. da
du
zuen
zen

6. inork
ezer
norbaitek
norbait

7. Uztaileko
Maiatzeko
Abenduko
Irailko

8. Bilboraino
Bilbotik
Bilbon
Bilborantz

9. aurretik
eta gero
azkar
aurrean

10. telefonoz
telefonoan
telefonotik
telefonoarekin

11. nintzen
nintzela
genuen
genuela

12. zetorren
zeuden
zebilen
zebiltzan

13. ondoan
hurbil
motz
urrun

14. pasatu
pasatzen
pasatzera
pasatzea

15. batzuek
batzuk
batek
bat

16. zaitut
dizut
diot
didazu

17. ginenean
ginen
zirenean
ziren

18. nengoenean
nagoenean
nengoen
nago

19. aurrean
atzean
aurrera
atzera

20. ibiltzen
ibili
gabiltza
ibiliko

21. pasatzetik
pasatzea
pasatzen
pasatu

22. ikaraz
ikararen
ikara
ikararekin

23. ginen
genuen
geunden
genbiltzan

24. ondoren
aurretik
baino lehen
ondoan

25. errepidetik
errepideko
errepidearen
errepidean

26. gero
beranduago
aurretik
horrela

27. bai
baietz
ez
ziur

ERANTZUNAK

1. EGUNERO
2. ZAHARRAK
3. BIOK
4. JOATEN GARA
5. ZEN
6. INORK
7. ABENDUKO
8. BILBORANTZ
9. AURRETIK
10. TELEFONOZ
11. NINTZELA
12. ZEBILEN
13. URRUN
14. PASATZEA
15. BATZUK
16. DIZUT
17. GINENEAN
18. NENGOENEAN
19. AURRERA
20. IBILI
21. PASATZEN
22. IKARAZ
23. GENUEN
24. ONDOREN
25. ERREPIDEAREN
26. AURRETIK
27. BAIETZ